

Lorena López de Lacalle

Arabako Foru Aldundiko Kultura, Euskara eta Kirol diputatua

«Xiri-miria bezala heldu nahi dugu behar den tokira»

PPren esku zortzi urtez izoztuta egondako Euskara Zerbitzuaren buru da EAko gasteiztarra. Irailean jarri zuten abian Zerbitzua eta koadrila bakoitzeko euskara teknikaria antolatu nahian dabilta. Euskaraz, eta nola ez, Veleiaz aritu gara.

ONINTZA IRURETA

GAZTELANIAZ egin dugu elkarrizketa, euskaraz oraindik ez delako ondo moldatzen. Aldiz, euskaraz kontatu digu 25 urtetako atzerriratzea eta euskararekiko izan duen harremana. 1959an jaio zen Gasteizen eta hamazazpi urterekin Genevara joan zen itzultzaile lanak ikastera. Han hamar urte, bost Strasburgon eta hamar Bruselan. 2001ean itzuli zen Gasteiza, “ez baita munduan Euskal Herria baino toki hoberik bizitzeko”. Euskara pixka bat ikasi zuen ikastolan. Orain ikasten ari da berriz, “daki-dana erabiliz, hitz egin gabe ez dago ikasterik”.

Euskara Zerbitzua abiatu berri duzue. Zein da lehentasuna?

Irailaren 1ean hasi ginen Zerbitzua-ekin. Erabilera, hedapena eta sustapena dira lehentasunak. Gizarte erabilera interesatzen zaigu. Erakunde eta norbanako askok egin du ahalegina jendeak euskara ikas dezan, baina orain lortu behar duguna da euskara kalera ateratzea. Erakundeok lortu behar duguna da euskararen erabilera errealerako aukerak bultzatzea kalean: antzerkia, hitzaldiak... kulturaren bidez euskarari adierazpidea ematea.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

“Teknikariak, erakundeak eta tokian tokiko gizarte sarea batuko dituen bitartekoa izatea nahi dugu. Leku bakoitzeko beharrak zein diren jakin nahi dugu eskaintza eskaerara molda dadin”.

Hiru hizkuntza ditugu, Hegoaldean bi, eta elebitasun erreala lortu behar dugu. Kontuan hartu behar da gizartearen zati batek nahiz eta ez hitz egin ulertzen duela euskara eta hori ere elikatu behar da.

Erabilera helburu dela teknikari sarea egituratuko duzue.

Gauza bat esan behar da. PPren zortzi urteko desertuko zeharkaldiaren

ondoren jarri dugu abian Zerbitzua. Duela zortzi urte EAK antolatutako zerbitzua berreskuratu dugu. Asmoa bera da: erabilera erreala bultzatzea gizartearen.

Zerbitzu buruak, teknikariak eta administratzaileak sustatuko dute zerbitzua eta bakarrik ezingo dutenez euskara teknikarien sarea osatuko dugu. Koadrila bakoitzeko bat izango da, guztira zazpi. Sarea oso garrantzitsua da.

Oraindik ez dago teknikaririk koadriletan, baina udaletan bai.

Udal batzuetan bai, baina itzulpen lanetan dabilza batik bat. Teknikariak erakundeak eta tokian tokiko gizarte sarea batuko dituen bitartekoa izatea nahi dugu. Leku bakoitzeko beharrak zein diren jakin nahi dugu eskaintza eskaerara molda dadin.

Araba oso desberdina da euskarari dagokionez, eremu batzuek abantaila daukate beste batzuekin alderatuz.

Nola hurbildu euskarara mesfidati direnak?

Jakin behar dugu azaltzen euskara ez dela alde batekoa, lurralde honetako hizkuntza baizik, eta hona datozen guztiena. Hizkuntzarekiko maitasuna transmititzen asmatu behar dugu.

Euskara ikasten hasita deskubritzen duzu eskaintza biderkatzen dela, esate baterako hedabideena. Gai berak jorratzen dira hizkuntza batean ala bestean, ez da pentsatu behar euskara ideologia jakin baten transmisore denik. Euskara beste edozein hizkuntza bezala da. Gure hiru hizkuntzak mundurako leiho bana dira. Aberastasun dira norbakoarentzat.

Egia da zailtasuna duela hasieran, gramatika latindarretik hain urrun dago. Alabaina, aukera eman behar zaie ikasten ari diren horiei zerbaitearako balioko diotela sinetsi dezaten, erabili dezaketela, alegia. Dramatikoa litzateke hizkuntza akademikoa eta erakundeena baino ez izatea, lau hormen artean erabiliko dena. Hitz egiten ez bada hizkuntza galdu egiten da. Inolako hizkuntzarik ez da egin museoetarako. Euskara bizirik baldin badago erabili egin behar dugu.

Euskararen Aholku Batzordea berreskuratu duzue.

IRUÑA-VELEIA

“Foru Aldundiak ez zuen erreakzionatu ohartarazi zizaionean”

Zer esan herritar xumeari aurkikuntzaren berri ofizialki eman eta bi urtera idazkunak benetakoak ez direla esan bada?

2007ko abuztura arte ni ere herritar xumea izan naiz. Ni ere berdin-berdin harritu naiz. Ez da normala hainbeste denbora igaro izana. Zergatik gertatu den hau? Foru Aldundiak ez zuen erreakzionatu ohartarazi zizaionean. Aurkezpen publikoa egin eta egun gutxira batzuek zuhur ibiltzeko eskatu zuten. Ez zitzairen kasurik egin. Zalantza horiek inoiz ez ziren desagertu.

2007ko abuztuan, kargua hartu nuenean, prentsa sutan zegoen, bi bandoak liskar etengabeen ari ziren. Ezin genuen borroka mediatikoan segi lan zientifiko serioa egin gabe. Aholku batzorde zientifikoa sortzea pentsatu nuen eta 2007ko urri-azaroan EHUrja jo genuen. Batzordeak bi baldintza bete behar zituen: kanpoko adi-

tuak ere egotea eta diziplina bat baino gehiago kontuan hartzea. Batzordeak hamar hilabetez egin du lan. Eliseo Gilek jakin du zer esaten zen batzordean, berak ere lagundu du. Emaitzak jasotakoan, txosten bakarra egin behar egin diziplina bakoitzeko bat egitea erabaki genuen. Denen emaitzen batuketak dio idazkunak ez direla benetakoak. Gilen alegazioak jaso ditugu eta fiskaltzari eramango diogu dossier guztia.

Idazkun faltsuak nork egin dituen jakin beharko da.

Dakiguna da gure herriaren ondatsunari kalte egin zaiola. Nork egin duen eta zergatik guri ez dagokigu, fiskaltzak esango du nondik jo behar den. Beste gauza bat da aztarnategiaren zuzendariaren arduradun gu izatea, hori gure esku dago eta lanerako baimena kendu zaio Eliseo Gili.

Irekiagoa eta sektoreari lotuagoa da orain. Hogeitik gora eragile dira batzordean: euskaltegiak, euskara elkarteak, unibertsitateko irakasleak... eta ez dago itxita. Batzordekideak gogoz hasi dira lanean, borondate handia sumatu dugu.

Xiri-miria bezala iritsi nahi dugu behar den tokira, norekin eta euskararen alorra ondoen ezagutzen dutenekin. Gizartea eskatzen ari zaigu, asko eskatzen ari zaigu. Batzuk lanpostuak lortu nahi dituztenen eskakizunak dira, baina ez dira bakarrak. Beste batzuek kariñoagatik berreskuratu nahi dute euskara, bere garaian kendu egin ziotelako, gurasoek ez ziotelako ira-

katsi adibidez. Aiton-amonek berriz, euskara berreskuratu duten bilobekin aritzeko nahi dute ikasi.

Baikorra zara.

Garai batean erabilera oso murrizta zen eta jakineko sektoretan. Gaur egun ez da hain ez ohikoa kalean zoazela euskara entzutea. Baikorra izan behar da eta beldurra galdu. Euskara dakitenek asko erakusten digute ikasten ari garenoi, pazientzia handia baitute. Dakigun mailan erabili behar dugu, hori da garrantzitsua, erabiltzea. Beldurra galdu behar zaio gaizki aritzeari, eta hala bada, pixka bat gehiago biziko gara euskaraz. ■

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala
euskarazko komunikabideen alde



euskara
zerbitzua
errenteriako udala